


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,4 igo dira 2007ko apirilean

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko apiriletik 2007ko apirilera) eraikuntzaren kostuak %5,7 igo dira.

EAEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,4ko igoera izan du 2007ko apirilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,7ra igo da, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera apirilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2007ko apirilean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,6ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: eraikuntzak %0,6ko igoera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibilako lehengaien kostuek %0,7koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da antzeko joerak izan dituztela baina ezberdintasun batzuekin: eraikuntzako lehengaien kostuak %7,0 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %5,4.

Apirilean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, petrolioaren eratorrietan (%4,0), asfaltozko produktuetan (%4,0), beiran (%2,9), metalezko tutuerietan (%2,7), burdina eta altzairuan (%2,5), eta lehergai eta gasetan (%1,6) kontsumitutako lehengaietan eman ziren. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: energia elektrikoa (-%4,6), karea, igeltsua eta eskaiola (-%1,5), erauzketa-agregakinak (-%0,3), zementu artifiziala (-%0,2) eta zura eta kortxoak (-%0,2).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: burdina eta altzairua (%24,5), metalezko tutueria (%19,9), beira (%19,0) eta energia elektrikoa (%13,3). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2006ko apiriletik 2007ko apirilera) murriztu egin dira: petrolioaren eratorriak (-%7,3) eta asfaltozko produktuak (-%8,5).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko apirila.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	130,9	0,4	5,7	3,3
ERAIKINAK	131,1	0,4	5,9	3,4
OBRA ZIBILA	130,2	0,5	4,7	3,1
LEHENGAIEN KOSTUA	128,1	0,6	6,7	3,3
ERAIKINAK	128,5	0,6	7,0	3,3
OBRA ZIBILA	126,2	0,7	5,4	2,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp